

ahots batez

coro EASO abesbatza

26. zkia. 2025

easo abesbatzaren berriak  noticias del coro easo

LEGE GORDAILUA: SS-217/2012



MUSIKA GOGOKO DUZU? ¿TE GUSTA LA MÚSICA?

ETORRI ETA MATRIKULATU! / !VEN Y MATRICÚLATE!

Doctor Marañon, 20 (Aiete) • 20009 Donostia-San Sebastián

Tlf: **943 31 48 87** • info@easomusikaeskola.com

HAUR HEZKUNTZA MUSIKALA FORMACIÓN MUSICAL INFANTIL

Musika Hastapena (2-3 urte)

Musika eta Mugimendua (4-6 urte)

HEZKUNTZA INSTRUMENTALA FORMACIÓN INSTRUMENTAL

Harpa, Pianoa, Eskusoinua, Gitarra, Bibolina, Biolontxelo, Klarineta, Flauta, Saxofoia, Tronpeta, Perkusioa, Tronboia-Bonbardinoa-Tuba, Gitarra elektrikoa, Baxu elektrikoa, Bateria, Txistua, Dultzaina, Trikitixa, Panderoa...

GAI OSAGARRIEN HEZKUNTZA FORMACIÓN MUSICAL COMPLEMENTARIA


Musika mintzaira, Entzumen hezkuntza, Kultura musikala...

KANTUA ETA ABESBATZAK CANTO Y COROS

Abesbatzak (haur, gazte, heldu, edadetu...), Kantu modernoa, Ahots teknika...



Elkartea
Asociación



Aurkibidea

Editoriala	4
In Memoriam	6
Easo Musika Eskola	
Gogoeta	9
Formakuntza Eskaintza	10
Haur abesbatzak	16
Cum Jubilo abesbatza	18
<i>Logelan logale</i> Haur-kantata Euskadiko Orkestrarekin	
Repertorio de Easo Gazte + crónica conciertos	
<i>Abestu Euskadiko Orkestrarekin</i> . Kontzertu efimero baten balioa	
<i>La isla de las perlas</i> : Una joya de don Pablo	
<i>El Coro Easo y la Real Sociedad</i> : un año de encuentros entre la música y el fútbol	
Musika Hamabostaldia: Jesus Guridiren <i>Amaya</i>	
<i>West Side Story</i> , en la Quincena Musical	
<i>Nizugu</i> . Ni askoren istorioa	
<i>El Coro Easo en el Festival de Cine de San Sebastián</i> : cuando la música da voz a las imágenes	
Easo Kapera Gregorianista: agur eta ohore	
Easo Beteranoen abesbatza	
Easo Sinfonietta: grabaciones, conciertos	
Gabonetako kontzertua: <i>El Diario Vasco</i>	
<i>Le Noël Du Greccio</i> . Un concierto, dos basílicas	
Easo Abesbatzaren Danborrada	
Berri laburrak	
Easo abesbatzaren 2025ko parte-hartzeak	60
Abesbatza eta kantoreak 2025	62



Koordinazioa / Coordinación:

Marta García, Begoña Mendibil

Erredakzio taldea / Equipo de redacción:

Iñaki Arana, Javier Pérez, Juan Quiroga, Iñigo Casís, Santos Sarasola, Begoña Mendibil, Marta García, Lucía Arzallus, Asier López, Iraide Urbistondo, Koldo Aulestia, Koro Urbieta

Elkarrizketatuak / Entrevistados:

Jagoba Astiazaran

Argazkiak / Fotografías:

Iker Blanco, Gorka Miranda, Nuria Zumeta, Marta García, Quincena Musical de San Sebastián

Elkartearen zentzua

El sentido de la asociación

Hace tiempo que el Coro Easo es mucho más que un coro y, aunque lo que se recoge en este anuario no es más que una muestra de todo lo que late en esta entidad, sí es un reflejo de su pasión. Somos una comunidad musical viva que agrupa a más de 400 coralistas distribuidos en 11 agrupaciones diferentes, cada una con unos objetivos y una identidad propios que dan respuesta a las necesidades e inquietudes de personas muy diversas, desde los 2 años que comienzan con música y movimiento, hasta los 93 y 94 años que tienen nuestros coralistas más veteranos, Merche y Paco. Todos compartimos la pasión por la música y el canto coral: desde los coros infantiles hasta nuestros grupos de adultos, sin olvidar al coro Cum Jubilo, a la Capilla Gregorianista y su sucesora la Escuela de Monodia, ni tampoco a la orquesta amateur recién creada, la Easo Sifonietta. Siempre con el foco puesto en la formación, el disfrute y la mejora continua, el corazón de toda agrupación *amateur*.

Uste sendoa dugu musikak, eta bereziki musika koralak, baliu pedagogiko kalkulaezina dutela, elkarrekin zerbait ederra eraikitzen irakasten duelako, besteak entzunez eta errespetatuz. Horregatik, gure Musika Eskolak lanean jarraitzen du kalitatezko musika hezkuntza eskaintzeko. Astero 200 ikasle baino gehiago trebatzen dira musika hizkuntza eta kulturaren, kantuan eta instrumentu sorta zabal batean. Azken bi urte hauetan, hain zuzen ere, ikastetxeetan gure prestakuntza-eskaintza zabaltzeko lanean aritu gara, eta gaur egun La Salle Donostia Ikastetxearekin, Santo Tomas Lizeoarekin eta Deutsche Schule eskola alemaniarrekin kolaboratzen dugu. Azken horretan, gure presentzia handitu dugu koro-hastapen eskola, alemanezko korua, biolina, harpa, zeharkako txirula eta gitarra eskainiz. Oso hunkigarria da ikustea eskolara oso txikiak zirela sartu zirenetako asko, gaur egun, gure gazte eta helduen abesbatze-

tako kide direla, eta beste batzuek ere goi mailako kontserbatorioetan jarraitzen dutela musika ikasten. Hori da belaunaldi berriekin partekatzen jarraitu nahi dugun ondarea.

Como entidad, estos dos últimos años han sido especialmente intensos en cuanto a la creación de nuevas alianzas. En lo que respecta a los estudios superiores, hemos renovado el convenio con Musikene, el Centro Superior de Música del País Vasco, para colaborar en el desarrollo de actividades en los ámbitos de la pedagogía musical, la investigación y la dirección coral. Hemos firmado también un acuerdo de colaboración con la Universitat de Girona para impulsar juntos la formación y la difusión de la música coral, y poder así unir esfuerzos en actividades educativas, artísticas y de promoción cultural.

Horrez gain, urrats garrantzitsuak egin ditugu beste norabide batzuetan ere. Poliklinika Gipuzkoarekin kultura eta osasuna batzen dituen lankidetzara itxi dugu, musika korala komunitateari hurbiltzeko eta pertsonen ongizatea hobetzen duten ekimenak sustatzeko elkarrekin lan eginez. Eta nazioartean, Lituaniako Kaunas School of Sacred Music-ekin, Kaunas Eliz Musika Eskolarekin, harremanetan jarri gara, Europan zehar truke eta proiektuetarako atea irekitzen dizkigularik. Eta, gainera, abesbatza berri bat jarri dugu martxan Urnietan, bertako Udalarekin elkarlanean, herrian abesbatza-prestakuntzarako zegoen eskaerari erantzunez.

Por supuesto, todo esto, estas más de 600 personas cantando, aprendiendo y creando juntas, no sería posible sin un tejido de apoyo sólido que nos sostiene y nos acompaña.

Horregatik, lehenik eta behin, Easo Abesbatza urtez urte babes ten duten erakunde publikoen babesa eskertu nahi dugu: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala. Jon Insausti, gure egungo alkateari, ematen ari zaigun lagun-



Estructura directiva. De izquierda a derecha: Gorka Miranda (Dirección Artística), Javier Pérez (Dirección Pedagógica) e Iker Blanco (Dirección Gerencial).



Miembros de la junta directiva. Arriba, de izquierda a derecha: Koldo Aulestia (vicepresidente), Juan Jesús Neira (presidente), Marta García (vocal) e Iñigo Casís (vocal). Abajo, de izquierda a derecha: Juan José Goikoetxea (tesorero), Zaloa Lopez de Munain (secretaria) y Begoña Mendibil (vocal).

tzagatik eta etorkizunari begira gurekin duen konpromisoagatik. Eta, jakina, baita Eneko Goiari ere, urteetan gure beharrak zaintzen eta gure eskaerak erantzuten aritu baita. Eskerrik asko, halaber, Donostia Festak lantaldeari, gure hiriko festetan Easo txertatzeagatik eta Donostiako bizitza kulturean parte hartzeko etengabeko gonbitagatik. Eta Donostia Kultura eta bertako langileei ere eskerrak, kultur arduradun zein eta antzokiko teknikari, haien etxera joaten garen guztietan maitasunez hartzen gaituztelako. Musika eta kantu koral amateurra babestea apustu politikoa da, gizartea bertikalean eta horizontalean egituratzen duena. Gure asmoa konpromiso kultural hori indartzea da eta, beraz, oraindik ere badugu zer eskatu, badakigulako beti jasoko dugula erantzuna.

Nuestro agradecimiento especial a Kutxa Fundazioa, cuyo apoyo económico ininterrumpido resulta fundamental para la sostenibilidad de la asociación. Y también a entidades culturales con las que compartimos objetivos y caminos, tanto en lo que respecta a la interpretación y cuidado del repertorio vasco, como a la internacionalización: el Etxepare Euskal Institutua, la Quincena Musical de San Sebastián y su director Patrick Alfaya, que año tras año confían en nuestro trabajo con niños y mayores para hacer frente a retos artísticos de primer nivel, y la Euskadiko Orkestra, ahora con Roberto Ugarte a la cabeza, que nos sigue abriendo espacios y posibilidades de crecimiento.

Hori guztia Easo osatzen dugun pertsona guztien ardurari esker da posible: eskolako ikasle, familia eta irakasle guztiak, astez aste entseatzuten duten 400 koralistatik gora, zuzendariak, piano-jotzaileak eta laguntzaileak, idazkaritza eta administratzaileak, itzalean lan egiten duten zuzendaritza batzordeko kideak, eta baita, eta oso modu berezian, aldizkari hau jasotzen duten guztiei esker ere: urtez urte kontzertuetan, sare sozialetan eta era guztietako ekitaldi eta ospakizunetan laguntzen diguten

bazkide eta lagunak. Zuen presentzia eta etengabeko babesa komunitate honen funtsezko zatia dira.

Somos optimistas con el futuro porque tenemos ganas de trabajar y un firme compromiso con esta familia que somos el Easo; pero no somos ingenuos, y prevemos algunos retos para los que seguiremos necesitando ayuda y sostén. Uno de los mayores desafíos a los que nos enfrentamos actualmente es la dificultad de atraer a los más pequeños a la formación musical y al canto coral. Para empezar, porque los datos de natalidad nos indican que cada vez hay menos niños y niñas, pero también porque los modelos de ocio han cambiado mucho en los últimos años, y la opción del canto coral y de la formación musical quedan diluidas entre los estímulos constantes e insistentes. Nuestra apuesta pasa por aumentar las alianzas con los centros escolares y, por supuesto, por seguir transmitiendo la ilusión y los valores de la actividad coral.

Horrez gain, aurrera egin behar dugu nazioartean dugun presentzia sendotzeko, eta hori bi zentzutan: batetik, euskara eta euskal-abesbatza erreperorioa gure mugetatik haratago eramateko, eta, bestetik, hazten eta aurrera egiten jarraitzeko aukera emango diguten nazioarteko taldeekin lankidetzan aritzeko.

Y, por último, seguimos abordando al reto de ampliar y fortalecer nuestra base social, en los coros y en la Sinfonietta, para poder cumplir nuestro mayor objetivo, que es un objetivo de todos: que no quede ninguna persona con ganas de cantar o de hacer música que no tenga un espacio en el Easo.

Easo Abesbatza zer den galdetzen dutenentzat erantzun bat honakoa izan liteke: familia bat da, mugimenduan dagoen organismoa, musikaz gozatu nahi duen edonorengana iritsi eta hura asebetetzeko gogo bizia. Eskerrik asko lagun guztiei gurein egoteagatik eta hau guztia posible egiteagatik.

In Memoriam

GUREKIN JARRAITZEN DUTE GURE ONDOTIK JOANDAKOAK, GURE OROIMENEAN ETA GURE ESKER ONEKO EKINTZETAN

El 23 de noviembre nos reunimos en la iglesia de los Franciscanos de Egia cantores y familiares de los fallecidos en 2025, en un acto religioso de reconocimiento en su memoria y de agradecimiento a sus familias. Somos conscientes de que no están todos los que nos nombramos, ya que, siendo miembros de las familias de los que forman parte del Coro Easo, no siempre se nos comunica el fallecimiento.

En realidad, el Coro Easo y su canto nos unen estrechamente a quienes en un tiempo fueron protagonistas de nuestra música vasca y a los que proyectan actualmente la voz del Coro en tantos lugares, desarrollando programas de músicas y géneros tan variados. El Coro estuvo en plenitud en sus primeros 60 años y lo sigue estando en el momento actual, tal como lo testimonia la participación continua en grandes festivales y tan variados conciertos. La cadena que nos une permanece con mucho lustre.

Es evidente que nuestros muertos permanecen en nuestra memoria y en las páginas de las sucesivas revistas del Easo. Las reflexiones que mostramos quieren llevarnos además a confiar en un futuro reencuentro festivo.

2025ean zendutako Easoren lagunak:

*Kepa Anabitarte Mujika
Martina Ajarnaute Larrea
Juanjo Dorronsoro Goikoetxea
José Luis Navarro Armendariz
Josepa Otermin Saralegi
José Antonio Salas Cortijo
Maria José Sanchez*

A benduaren 23an ospatu genuen Egiako Frantziskotarran elizan urteroko meza, Easo Abesbatzaren lagun hilak oroitzu eta omenduz. Badakigu ez ditugula urtean zehar hildako guztien izenak jaso, ez bazaizkigu komunikatzen. Baina Easo esker onekoa da hainbeste urteetan irauarazteko beren partaidetza eta laguntza ematen duten guztiak. Eta kantuz oroitzen ditugu.

Izan ere, kantuak goxatzen ditu penak, baita heriotza ere. Kantua da kutunen konpainian hiltzea, kantua bizitzaren une onak konpartitu ahal izatea, kantua bizitzarengatik eskerrak ematea eta kantua, maite dugunei azken mezuak ematea eta agur esateko aukera izatea... kantua, hil ondorengo azken agurra ospatzea.

Orri honetan gogoratu nahi ditugu esker onez urtean zehar hil diren lagunak eta lagunen lagunak. Eta hala egin genuen, oitza-kantuz.

**Lagunok, hara ni ere heldu munduko egun handira
hemengo nire zerbitzu-lanak
hontantxe bukatu dira
aldez aurretik noakizue
diren guztien argira
hantxe izango nauzue zuei
denoi begira-begira**

Hona hemen, Xabier Letek, heriotza gertu ikusten zue-neko heriotzari buruzko pentsamendu sakon batzuk. Heriotza, sakonean, haustura bat da, zesazio behin betirakoa mundu honetako ikuspegitik begiratuta. Heriotzaren unean, bizi ziren haiek joan egiten dira, gure ondotik behin betirako urruntzen zaizkigu, eta guk ezin dugu beraien alde ezer egin; ezin diegu gure maitasunaren izpi ttiki bat gehiago eskaini, eta ezin ditugu bizitzaren egun bakar bateko arnasara eta pozera ekarri ere. Heriotzak bide guztiak hesten ditu, ahalbide guztiak klausurazten ditu mundu honetako eszenatokian.

“Egusentiares esku izoztuak” (2008) lanean, Leteren mundu metaforiko eta hiztegi poetikoaren gailur kontsideratzen dena, bere bizitzaren esperientziak (galera, heriotzak...) gogoetatu eta hitz bilakatu zituen. Egunen batean hilko den kontzientziaren jabe, edozein unetan heriotza bidera aterako zaiola eta nahi duena gauzatzeko aukerarik ez duela izango jakitun, itxaropenik ez duen gizaki existentzialista horrekin parekatzen da. Baina badu egoera etsipengarri hori konpontzeko bidea: MAITASUNA. Jainkoan sinistera eramaten du horrek, hura baita maitasuna bizirik mantendu dezakeen bakarra, baita heriotzaren ostean ere.

**Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan.**

*In Paradisum deducant te angeli, in tuo adventu suscipiant
te martires et deducant te in civitatem sanctam Jerusalem.*

Hildakoen liturgiatic

*Garai batean, sinetsi nahi izan nuen ez zegoela bizitzarik
heriotza ostean, baina hori pentsa ezin dudala obartu naiz.*

Douglas Coupland

*El día de tu muerte sucederá que lo que tú posees en este
mundo pasará a manos de otra persona. Pero lo que tú eres
será tuyo por siempre.*

Henry Van Dyke

*Heriotza da hilezkortasunaren
lehen baldintza.*

Stanislaw Jerzy Lec

*“Egusentian
hilarriak laztanduz
barre egiten dio
eguzkiak
heriotzari”.*

Karme Jaio

Juanjo Dorronsoro Goikoetxea

EASO ABESBATZAREN PINTORE ARTISTIKOA

JUANJO DORRONSORO GOIKOETXEA FALLECIÓ EL PASADO DÍA 22 DE NOVIEMBRE. DEDICÓ MUCHAS HORAS DE SU JUBILACIÓN A LLENAR DE ARTE Y DAR ALMA A LAS PAREDES DESNUDAS DEL CORO EASO. SUS PINTURAS VISTEN LA SALA DE ENSAYOS, LAS PAREDES DEL VESTÍBULO, LAS AULAS DEL NIVEL 1, 3-6 AÑOS... CON MOTIVOS ADAPTADOS A SU EDAD. ERA AL MISMO TIEMPO EL MANTENEDOR Y RESTAURADOR DE LAS PEQUEÑAS DEFICIENCIAS QUE SURGÍAN EN EL EDIFICIO. ERA, SOBRE TODO, GRAN AMIGO DEL CORO.

LE DESPEDIMOS CANTANDO EN SU FUNERAL Y QUE SIRVAN ESTAS LÍNEAS NUESTRAS COMO RECUERDO Y HOMENAJE DE AGRADECIMIENTO A SU FIGURA.



Azaroaren 22an hil zitzaigun Sevillan Juanjo, gure lagun handia. Ataundarra izanik, leku askotan bizi izana baina, azkenik, Donostian finkatu zuen bere bizilekua.

Seminario-garaitik ezagutzen genuen elkar; ondoren, bat egin genuen berriro Santo Tomas Lizeoan, ikastolako irakaslea bihurtuz. Filosofiako ikasketak egin eta arlo hori irakastea egokitu zitzaion.

Tartean Mexikon urte pare bat pasa ondoren, "Yoyes" ez-ize-neko andrearekin etorri zen bueltan, beren semetxoarekin. Hortik aurrera, denok ezagutzen dugu bikoteari gertatutakoa. Egoera horretan, Juanjok ez zuen gai hori erabili nahi izan sozialki, komunikabideak atzetik zeuzkan arren, elkarrizketa eskaera ugari uko eginez.

Baina bere ikasketatik aparte, bazuen beste afizioa barneratua, artearena, zehazki pinturarena. Artearen kritikoa irratietan. Bere trebetasun horren berri izanik, Lizeoak, filosofiaz gain, ikasleekin arte plastikoa landu zezan eskatu zion. Plastika-artiloaren eta zehazki arte piktorikoaren irakasle estimatua izan zen urte askotan, lanbidez.

Jubilatu ondoren, bere artearen bitartez hasi zen bere Easo Abesbatzarekiko harremana; bere denbora gizartearen zerbitzuan jarri nahi zuela esanez etorri zitzaidan eta erakutsi nizekion Easo egoitzen paretak biluzik: zure artea erantsiko bazenie! Eta hala gustura hartu zuen bere gain ardura hori.

Pinturaz zikindu zuen bata txuria jantziz, Easoren lehen etxearen behean dagoen almagaren txoko batean bere tailerra finkatu eta astean zeharreko goiz askotan ekin zion aipatutako lanari.

Hasteko lehen etxeko entsegu-gela panel handi ederrez dotoretu zuen. Gero, pixkana, haur txikien saio-gelak adinari dagozkion moduan egokituak eta, amaitzeko, *Halla* edertzen jarraitu zuen. Arreta handiz pentsatzen zuen espazio bakoitzari zegozkion irudiak edo abstrakzioak, paretara itzuli aurretik.

Kromatismoaren maisu, argi-koloreekin jolasten zuen eta musika kutsu poetikoz eta irudi egokiek janzten zuen: naturaren elementuak, hostoak, adartxoak, txoriak, tximeletak, ilargiak..., erabiltzen zituen asko eta, egoitza bakoitzak duen funtzioa kontuan hartuz, era askotako instrumentuak, kantoreak, partiturak eta abar sartu zituen era sinbolikoan eta eraldatuak, paisaian erdi ezkutatuak. Kolore biziz eta ugariz, atseginak eta oso bisualak gertatzen dira bere pinturak. Hala, ETBak, grabazio bat egin behar zuela eta, grabatu zituen ere entsegu-gelako pinturak; paisaia zoragarria gertatu zen grabazio horren ikuspegia.

Erti plastikoetan ohitua, arlo praktikoetara eramanda, instalazioen mantenu txikien ardura ere bereganatu zuen, egurrezko lurraren eta paretan pitzadurak eta falta txikiak konpontzen zituen pazientzia handiz eta zehaztasun guztiz. Trebea zen egin-kizun horietan ere.


Bestetik, ez dago esan beharrik, pinturaren zirriborroa egin eta erakusten zigun gure iritzia jaso nahian; barre-saio ederrak egiten genituen agertzen ziren elementuak ateratzen. Ez zaigu berehala ahaztuko Javier Laskurainen komentario barragarriak entzun eta barrez lehertuz bukatzen genuen gure iritzia ematerakoan; orain elkartuko ziren biak, Javier eta Juanjo.

Benetako laguntasuna sortu zen Juanjo eta Iker, Nuria eta idazten duenarekin. Benetan une ederrak pasa genituen elkarrekin.

Zu, Juanjo, joan zara gure ingurutik baina asko gogoratzen gara gutaz, zure pinturak begiratzen ditugun guztietan.

*Izan ongi
hodeiak eta izarrak
edertzen!*







Gogoeta

Música y deporte: *mens sana in corpore sano*

EL DESARROLLO INTEGRAL DE LAS PERSONAS NO DEPENDE ÚNICAMENTE DEL APRENDIZAJE ACADÉMICO. CADA VEZ MÁS ESPECIALISTAS EN EDUCACIÓN COINCIDEN EN QUE ACTIVIDADES COMO EL DEPORTE Y LA MÚSICA CUMPLEN UN PAPEL ESENCIAL EN LA FORMACIÓN DE HABILIDADES FÍSICAS, COGNITIVAS, EMOCIONALES Y SOCIALES. COMPRENDER POR QUÉ ESTAS PRÁCTICAS SON TAN VALIOSAS PERMITE PONER EN PERSPECTIVA SU VERDADERO IMPACTO EN LA VIDA COTIDIANA.




En primer lugar, el deporte es una escuela de hábitos y valores. A través de la actividad física regular, se fortalece el cuerpo, se mejora la coordinación y se promueve una vida saludable. Sin embargo, su aporte va mucho más allá de lo corporal, ya que la práctica deportiva tiene también un impacto directo en la salud mental al ayudarnos a generar hormonas muy beneficiosas como el cortisol, endorfinas, dopamina, serotonina, etc. Por otra parte, el entrenamiento promueve la organización del tiempo, la constancia y la superación personal. En los deportes grupales, además, se aprende a trabajar en equipo, a respetar normas comunes y a reconocer que los logros colectivos son el resultado del esfuerzo compartido.

La música, por su parte, es una herramienta educativa de gran alcance. El hecho de aprender música implica entrenar la escucha atenta, la memoria y la concentración. En el caso del estudio de un instrumento además se desarrolla la motricidad fina, la coordinación y la capacidad de resolver problemas de manera progresiva, ya que cada obra presenta nuevos desafíos técnicos y expresivos. Este es un proceso que fomenta la paciencia, la disciplina y la autonomía en el aprendizaje.

Más allá del aprendizaje individual, hacer música en grupo ocupa un lugar central en la experiencia musical. Tocar o cantar junto a otros exige escuchar, sincronizarse y asumir un rol dentro de un conjunto. Cada miembro de esa agrupación debe





conocer su parte, respetar los tiempos comunes y adaptarse a las decisiones compartidas. En este contexto, la música se convierte en una práctica colectiva donde el resultado final depende del compromiso individual puesto al servicio del grupo.

Si lo trasladamos a una perspectiva didáctica, la música en grupo enseña habilidades sociales fundamentales. Favorece la cooperación, la empatía y la responsabilidad colectiva, al tiempo que muestra de manera concreta cómo la diversidad puede transformarse en una experiencia armónica. Además, este tipo de práctica refuerza el sentido de pertenencia y genera espacios de encuentro donde la expresión artística se vive como un proceso común.


La música también cumple una función emocional clave, porque permite expresar sentimientos, reducir tensiones y desarrollar la sensibilidad estética. Además, compartir la experiencia musical potencia estos efectos: crea vínculos, fortalece la comunicación no verbal y ayuda a construir confianza entre los propios participantes.

Por último, podemos concluir que integrar deporte y música en la educación y en la vida cotidiana significa apostar por una formación que contemple a la persona en su totalidad. Ambas prácticas enseñan que el aprendizaje auténtico requiere tiempo, constancia y relación con los demás. El deporte trabaja el cuerpo y la voluntad; la música, la escucha y la sensibilidad; y tanto el deporte como la música en grupo, muestran cómo el esfuerzo individual cobra sentido cuando se orienta hacia un objetivo común.



En una sociedad cada vez más individualista y acelerada, donde la tecnología y las pantallas nos alejan cada vez más de la verdadera esencia del ser humano, el deporte y la práctica musical compartida ofrecen un espacio para reencontrarnos en la convivencia, a respetar ritmos distintos y a construir juntos. Fomentar ambas es sembrar experiencias que ayuden a formar personas más equilibradas, empáticas y conscientes de que el verdadero desarrollo no se logra en soledad, sino en comunidad.









2026

Formakuntza eskaintza

I. maila – Kontaktua (2-6 urte)

Maila honetan, musika adin goiztiarrenetara hurbildu nahi dugu, sentsibiltate musikal eta artistikoa piztuz, batez ere ludikoa eta bizigarria den klase dinamika batean.

- Musika Hastapen Goiztiarra (2 eta 3 urte).
- Musika eta mugimendua 1, 2 eta 3 (4, 5 eta 6 urte).

II. maila – Hastapena (7 urtetik aurrera eta adin-mugarik gabe)

7 urtetik aurrera, etapa honetako prestakuntza ahotsa eta/edo instrumentua aztertuz bideratzen da, ikastetxeko instrumentu-eta abesbatza-taldeetan parte hartzea sustatuz. Musika-hizkuntza musika irakurtzen eta idazten ikasteko euskarri teorikoa da. Ibilbide bakoitzak 6 modulu ditu.

- **Ibilbide klasikoa:**
 - Irakasgai nagusia (biolina, biola, biolontxelo, pianoa, zeharkako txirula, klarinetea, saxofoia, tronboia, perkusioa, harpa, gitarra klasikoa, kantua).
 - Irakasgai osagarria (musika-hizkuntza, musika-kultura).
 - Multzoen irakasgaia (talde instrumentala).
- **Ibilbide moderno:**
 - Irakasgai nagusia (teklatura, gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa, kantu moderno, bateria).
 - Irakasgai osagarria (musika-hizkuntza).
 - Multzoen irakasgaia (Combo).
- **Ibilbide korala:**
 - Irakasgai nagusia (Haur Abesbatzak).
 - Irakasgai osagarria (musika-hizkuntza).

III. maila – Finkatzea

Musikaren ezagutzan sakontzen jarraitu nahi duten ikasleei zuzendua. Ibilbide bakoitzak 4 modulu ditu.

- **Ibilbide klasikoa:**
 - Irakasgai nagusia (biolina, biola, biolontxelo, pianoa, zeharkako txirula, klarinetea, saxofoia, tronboia, perkusioa, harpa, gitarra klasikoa, kantua).
 - Irakasgai osagarria (harmonia).
 - Multzoen irakasgaia (talde instrumentala).
- **Ibilbide moderno:**
 - Irakasgai nagusia (teklatura, gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa, kantu moderno, bateria).
 - Irakasgai osagarria (harmonia moderno).
 - Multzoen irakasgaia (Combo).
- **Ibilbide korala:**
 - Irakasgai nagusia (Gazte Abesbatza).
 - Irakasgai osagarria (ahots-teknika).

IV. maila – Lehentasunezko jarduera

Aurreko mailako gaitasunak eskuratu dituzten ikasle guztiei eskainia, hezkuntza-eskaintza ikaslearen interesera, dedikaziora eta gaitasunera egokitzen duen maila da, banaka edo taldeka.

- II. mailako musika-tresna guztiak
- Abesbatzak (emakumeak, kapera gregorianista eta gizonen abesbatza) eta talde instrumentalak.



2026 Oferta formativa

Nivel I – Contacto (2 a 6 años)

En este nivel pretendemos acercar la música a las edades más tempranas, despertando la sensibilidad musical y artística en una dinámica de clase eminentemente lúdica y estimulante.

- Iniciación Musical Temprana (2 y 3 años).
- Música y Movimiento 1º, 2º y 3º (4, 5 y 6 años).

Nivel II – Iniciación (a partir de 7 años y sin límite de edad)

Desde los 7 años en adelante, la formación en esta etapa se vehiculiza a través del estudio de la voz y/o el instrumento, fomentando la participación en las distintas agrupaciones instrumentales y corales del centro. El lenguaje musical es el soporte teórico que nos permite aprender a leer y escribir música. Cada itinerario se compone de 6 módulos.

- **Itinerario clásico:**
 - Asignatura principal (Violín, viola, violonchelo, piano, flauta travesera, clarinete, saxofón, trombón, percusión, arpa, guitarra clásica, canto).
 - Asignatura complementaria (Lenguaje musical, cultura musical).
 - Asignatura de conjuntos (Grupo instrumental).
- **Itinerario moderno:**
 - Asignatura principal (Teclado, guitarra eléctrica, bajo eléctrico, canto moderno, batería).
 - Asignatura complementaria (Lenguaje musical).
 - Asignatura de conjuntos (Combo).
- **Itinerario coral:**
 - Asignatura principal (Coros Infantiles).
 - Asignatura complementaria (Lenguaje musical).

Nivel III – Afianzamiento

Orientado a los alumnos que quieren seguir profundizando en el conocimiento musical. Cada itinerario se compone de 4 módulos.

- **Itinerario clásico:**
 - Asignatura principal (Violín, viola, violonchelo, piano, flauta travesera, clarinete, saxofón, trombón, percusión, arpa, guitarra clásica, canto).
 - Asignatura complementaria (Armonía).
 - Asignatura de conjuntos (Grupo instrumental).
- **Itinerario moderno:**
 - Asignatura principal (Teclado, guitarra eléctrica, bajo eléctrico, canto moderno, batería).
 - Asignatura complementaria (Armonía moderna).
 - Asignatura de conjuntos (Combo).
- **Itinerario coral:**
 - Asignatura principal (Coro Joven).
 - Asignatura complementaria (Técnica vocal).

Nivel IV – Actividad preferente

Dedicado a todos aquellos alumnos que han superado la adquisición de competencias del nivel precedente, es un nivel que adapta la oferta educativa al interés, dedicación y capacidad del alumno bien de forma individual o grupal.

- Todos los instrumentos de Nivel II.
- Conjuntos corales (coro de mujeres, capilla gregoriana y coro de hombres) e instrumentales.



Urte bizia Easoko txikientzat Un año de intensa actividad para los más pequeños del Easo

2025. URTEA EMANALDIZ, BARREZ ETA MUSIKAZ BETETA EGON DA EASO TXIKI ABESBATZARENTZAT. KURSTSOA LOGELAN LOGALE HAUR KANTATA PRESTATUZ HASI GENUEN, ARTIS+ GIZARTERATZEKO ARTEA PROIEKTUAK ANTOLATUA. PROIEKTU HORREN BIDEZ, KANTU KORALA BULTZATU NAHI DUTE GURE HERRIKO IKASTETXEETAN, EUSKADIKO ORKESTRAREKIN LANKIDETZAN. GURE ABESBATZAK ESZENATOKITIK ABESTU ETA DANTZATU ZUEN, ORKESTRAKO MUSIKARIEKIN BATERA.

EL AÑO 2025 HA ESTADO LLENO DE ACTUACIONES, RISAS Y MÚSICA PARA EL CORO EASO TXIKI. EMPEZAMOS EL CURSO PREPARANDO LA CANTATA INFANTIL LOGELAN LOGALE, ORGANIZADA POR EL PROYECTO ARTIS+, ARTE PARA LA INCLUSIÓN SOCIAL, A TRAVÉS DE LA CUAL QUIEREN IMPULSAR EL CANTO CORAL EN LOS CENTROS EDUCATIVOS DE NUESTRO PAÍS, Y EN COLABORACIÓN CON LA EUSKADIKO ORKESTRA. NUESTRO CORO PARTICIPÓ DESDE EL ESCENARIO, Y JUNTO CON LOS MÚSICOS DE LA ORQUESTA, CANTANDO Y BAILANDO.



Maiatzean koru dinamika ireki bat eskaini genuen Santo Tomas Lizeoan, eta 55 ikasle izan genituen. Lau saiotan zehar, kantu korala barrutik bizitzeko aukera izan zuten guztiek. Gainera, proiektu horri esker, abesbatza bat sortu ahal izan genuen bertan, eskolaz kanpoko jardueren barruan. Hasiera batean 11 koralista batu dira koru horretara eta, hala, dagoeneko hiru ikastetxetan sartu du Easo Abesbatzak eskola-koruen dinamika: La Salle Ikastetxean, Deutsche Schule Eskola Alemaniarran eta Santo Tomas Lizeoan. Guztien artean, 6 eta 10 urte biarteko 30 koralista baino gehiago daude, eta astero elkarrekin abesteko arteaz gozatzen dute, arnasketa eta ahotsaren emisioa kontrolatzen ikasiz eta afinazioa eta musika-hizkuntza elkarrekin landuz.

Maiatza bukaeran, Easoko Musika Eskolaren ikasturte amaierako kontzertuan parte hartu genuen, Josu Elberdinek idatzitako “Jostailugilea” ipuin musikala interpretatuz. Ipuin honetan, gainera, musika eskolako instrumentu espezialitateetako ikasleek parte hartu zuten orkestra osatuz. Arrakasta handia lortu zen emanaldi horrekin eta, gainera, kurtsoa amaitu aurretik, ekainean, Zorroaga Fundazioaren Haur Abesbatzen XVII. Topaketan kontzertu bat emateko aukera izan genuen.

En mayo ofrecimos una dinámica coral abierta en el colegio Lizeo Santo Tomás, en la cual contamos con 55 alumnos. A lo largo de cuatro sesiones, todos ellos pudieron vivir el canto coral desde dentro. Además, este proyecto nos permitió crear un coro dentro de la actividad extraescolar del colegio, en el cual ya contamos con 11 coralistas que se han unido a nuestra actividad habitual. Con este coro ya son 3 los colegios en los cuales el Coro Easo Txiki genera una dinámica de coro escolar: La Salle Ikastetxea, el Colegio Alemán Deutsche Schule y Lizeo Santo Tomás. Entre todos suman más de 30 coralistas entre los 6 y 10 años que cada semana disfrutan del arte de cantar juntos, aprendiendo a controlar la respiración, la emisión de la voz y trabajando conjuntamente la afinación y el lenguaje musical.

A finales de mayo participamos en el concierto de fin de curso de la Escuela de Música de Easo, interpretando el cuento musical “El Juguetero”, escrito por Josu Elberdin. En este cuento, además, participó el alumnado de especialidades instrumentales de la escuela de música formando la orquesta. Fue un auténtico éxito. Antes de terminar el curso, en junio, también tuvimos el honor de ofrecer un concierto en el XVII Encuentro de Coros Infantiles de la Fundación Zorroaga.

Udan, beste urte batez, txikienek Musika Hamabostaldian parte hartzeko aukera izan zuten, jaialdian estreinatu eta Easo Abesbatzak ekoiztutako *Nizugu* haurrentzako opera berrian parte hartuz. Emanaldi hau erronka handia zen, eta gure koralista txikiek erronka eta entsegu-orduak irribarre eta jarrera ezin hobearekin gainditu zituzten. Abesteaz gain, beren alderirik eszenikoena esperimentatu ahal izan zuten eta sektoreko profesional ospetsuekin lan egin ahal izan zuten.

2025/2026 ikasturteari hasiera emateko, aire zabaleko kontzertu bat eskaini genuen Aieteko jaietan gure auzo guztiarentzat. Azaroan, Easo Abesbatzaren lehenengo Haur Abesbatzen Jaialdia egin genuen. Jaialdi horretan, gure abesbatzetako bakoitzak ikasgelan egindako lana erakusteko aukera izan zuten, familiei zuzendutako barne-kontzertu batean.

Haur abesbatzetako kideak Easo Abesbatzako bazkide eta laguntzako urteroko kontzertuan ere izan ziren, Victoria Eugenia, Toru Takemitsu eta Greg Gilpinen musika eskaintzen. Urteari amaiera emateko, Gipuzkoa Poliklinikako Gabonetako argien piztean emanaldi berezia eta jai girokoa eskaini genuen.

2025a oso urte bizia izan da gure kantari txikiengentzat, eta mirezgarriak izan dira haien ahalegina, lana eta dedikazioa. Ohorea da belaunaldi gazteena musika bera emozioz eta ilusioz bizitzen ikustea, gidari garenon lanbideari distira berezia ematen baitiote.

Durante el verano, un año más, los más txikis tuvieron la oportunidad de formar parte de la Quincena Musical participando en la nueva ópera infantil *Nizugu*, estrenada en el festival y producida por el Coro Easo. Esta actuación era todo un reto, y nuestros jóvenes coralistas superaron el reto y las horas de ensayo con una sonrisa y una actitud inmejorable. Además de cantar, pudieron experimentar su faceta más escénica y trabajar con profesionales de renombre en el sector.

Para abrir el curso 2025/2026 ofrecimos un concierto al aire libre en las fiestas de Aiete para todo nuestro barrio. En noviembre realizamos el primer Festival de Coros Infantiles del Coro Easo, en el cual cada uno de nuestros coros tuvo la oportunidad de mostrar el trabajo realizado en clase en un concierto interno para las familias.

Los integrantes de los coros infantiles también estuvieron presentes en el concierto anual para los socios y amigos del Coro Easo, en el Victoria Eugenia, interpretando música de Toru Takemitsu y Greg Gilpin. Cerramos el curso ofreciendo una actuación muy especial y festiva en el encendido de luces de Navidad de la Policlínica Guipúzcoa.

El 2025 ha sido un año muy intenso para nuestros cantores y cantoras más pequeños, y ha sido admirable su esfuerzo, trabajo y dedicación. Es un honor ver a la generación más joven viviendo la música con tanta emoción e ilusión, pues llena de brillo aquello que, para quienes les guiamos, es oficio.





Cum jubilo

2 024-2025 ikasturte honetan gure jarduera bi helburu nagusitara bideratu dugu batez ere:

Lehenengoa, EASO Abesbatzako familia handiak 2005ean hartu gintuenetik 20 urte bete direla uztailean ospatzea. Villa Araozeko auditorioan ospakizun xume bat antolatu genuen, kontzertu txiki batekin. Kontzertu horretara Cum Jubilo abesbatzako kide izan diren guztiak eta abesbatzaren sorreran eta martxan jartzean inplikazio zuzena eta garrantzitsua izan zutenak gonbidatu genituen. Urte hauetan guztietan jardunean egon diren koralistei ere detaile txiki batekin eskerrak eman nahi izan genizkien. Ondoren, Cum Jubilo-ren etorkizunaren alde topa egin ondoren, Palacio Aiete hotelera joan ginen bazkaltzera.

Bigarren helburua Léo Delibes musikagile frantziarraren meza abestea zen. Hainbat elizatan aritu ginen abesten, hala nola Andoaingo Amasa parrokian. Normalean zortea izaten dugu organoarekin, gure lankide Loli Oteizarekin, laguntzeagatik, baina orduan Ana Belen Garcia izan zen, eta oso eskertuta gaude. Meza horren ibilbidea amaitzeko, Artzain Onean abestu genuen EASOko koro gregoriantarekin batera, Gipuzkoako Elizbarrutiaren sorreraren mendeurrena zela eta.

Udaberrian Salamancako Gesaltzako Fco. abesbatzaren eta Irungo Betiko Ametsa abesbatzaren bisita jaso genuen, eta ikasturte amaieran bezala Tuterara joan ginen Mariaren Lagundiaren ikastetxeko elizan abestera, itzalaldiaren egunean hain zuzen ere (une batez elizako kandelaren argitan abestuko genuela pentsatu genuen). Tarazonara txangoak egiteko, Veruelako monasterioan abesteko, Nafarroako Errege Bardeak ezagutzeko, eta etxera itzultita, Olivako monasterioan abesteko ere aprobetxatu genuen aukera.

Este curso 2024-2025 hemos desarrollado nuestra actividad enfocada sobre todo a dos grandes objetivos:

El primero, celebrar en julio los 20 años cumplidos desde que fuimos acogidos por la gran familia del Coro EASO allá por el 2005. Organizamos una sencilla celebración, en el auditorio de Villa Araoz, con un pequeño concierto al que invitamos a todos los que han pertenecido al Coro Cum Jubilo y a los que tuvieron implicación directa y relevante en su creación y puesta en marcha. También quisimos agradecer con un pequeño detalle a los/as coralistas que se han mantenido en activo todos estos años. Posteriormente, después de brindar por el futuro del Cum Jubilo, como suele ser habitual en estas ocasiones, nos fuimos a comer al hotel Palacio de Aiete.

El segundo objetivo era cantar la misa del compositor francés Léo Delibes. La estuvimos cantando en diferentes iglesias como la parroquia Amasa, la de Andoain. Normalmente tenemos la suerte de que nos acompañe con el órgano, nuestra compañera Loli Oteiza, pero esa vez fue Ana Belén García, a la que estamos muy agradecidos. Terminamos el periplo de dicha misa, cantándola en el Buen Pastor junto con el coro gregoriano del EASO, con motivo del centenario de la creación de la Diócesis de Gipuzkoa.

En primavera recibimos la visita del coro Fco. de Salinas de Salamanca y la del coro Betiko Ametsa de Irún y como de fin de curso nos fuimos a Tudela a cantar en la iglesia del colegio de la Compañía de María, justamente el día del apogón (por un momento pensamos que cantaríamos a la luz de las velas de la iglesia). También aprovechamos la ocasión para hacer excursiones a Tarazona, cantar en el monasterio de Veruela, conocer las Bardenas Navarras, y de vuelta a casa, cantar en el monasterio de la Oliva.



Logelan Logale Haur-kantata Euskadiko Orkestrarekin

FITXA TEKNIKOA

Juanjo Ocón, zuzendaria
María Goiricelaya, eszena-zuzendaria
Kepa Errasti, abeslaria eta aktorea
Jagoba Astiazaran, jatorrizko musika
Leire Bilbao, libretoa

LOGELAN LOGALE ES EL TÍTULO DE UNA CANTATA DIRIGIDA AL ALUMNADO DE 5º Y 6º DE EDUCACIÓN PRIMARIA QUE ESTRENÓ EUSKADIKO ORKESTRA EN MAYO DE 2025 EN SAN SEBASTIÁN Y VITORIA. SE TRATA DE UN CONCIERTO PARTICIPATIVO EN EL QUE EL ALUMNADO CANTA FORMANDO GRANDES COROS JUNTO A EUSKADIKO ORKESTRA, Y LO HACE INTERPRETANDO ESTA OBRA COMPUESTA ESPECIALMENTE PARA LA OCASIÓN. LOGELAN LOGALE CONTINUARÁ CON MÁS CONCIERTOS EN SAN SEBASTIÁN Y VITORIA EN ABRIL DE 2026, Y EN MAYO SE ESTRENARÁ EN BILBAO CON LA INCORPORACIÓN A ESTE PROYECTO DE LA ORQUESTA SINFÓNICA DE BILBAO. ES UNA INICIATIVA DE LA EUSKADIKO ORKESTRA QUE FORMA PARTE DEL PROYECTO EUROPEO ARTIS+, ARTE PARA LA INCLUSIÓN SOCIAL, A TRAVÉS DE LA CUAL SE PRETENDE IMPULSAR EL CANTO CORAL EN LOS CENTROS EDUCATIVOS DE NUESTRO PAÍS.

Los coros Easo Txiki y Easo Gazte participaron como coros tractores desde el escenario, así como en la grabación de las pistas que se pusieron a disposición de los colegios participantes para facilitar el aprendizaje de las piezas. La cantata lleva textos y música originales de Leire Bilbao y Jagoba Astiazaran, respectivamente.

Hemos hablado con el compositor para que nos hable de su experiencia en el proyecto, del proceso de trabajo y de los retos que supone escribir para un gran grupo de niños con experiencia musical limitada.



Jagoba Astiazaran Zestoa, 1986

Posee el Título Superior de Música en las especialidades de Composición e Instrumentos de la música tradicional y popular, y Máster en Creación Contemporánea en el Centro Superior del País Vasco Musikene. Su trabajo de fin de carrera fue galardonado en 2012 con el Premio Orfeón Donostiarra/Universidad del País Vasco a la investigación musical. Su música ha sido dirigida por directores de prestigio como Arturo Tamayo, Carlo Boccadoro o Nacho de Paz, e interpretada por la Euskadiko Orkestra, la Orquesta Sinfónica de Bilbao (BOS) o las agrupaciones internacionales Ensemble Intercontemporaine, Ensemble Recherche, Ensemble Sillages, Sentieri Selvaggi y el cuarteto Diotima, entre otras. Cuenta con numerosas y variadas distinciones, como el Primer Premio del concurso Obra del Bicentenario de San Sebastián y la condición de Finalista del Concurso Internacional de Composición Feeding Music, organizado por el pabellón italiano de la Exposición Universal de Milán 2015. Desde 2008 es miembro de la Banda Municipal de Txistularis de San Sebastián y profesor de la Escuela Municipal de Música y Danza. Ha ejercido, además, como docente en el Centro Superior de Música del País Vasco Musikene y en el Conservatorio Juan Crisóstomo de Arriaga de Bilbao.

Nor da Jagoba Astiazaran? Zein izan da bere konpositore-ibilbidea?

Jagoba mutil saltseroa da. Txikitatik izan dut sortzeko nahia, eta gaztetatik hasi nintzen gauzatxoak sortzen (melodia, testu, edo dena delakoak). Gaztaroan musika tradizionalan espezializatu nintzen, baina inoiz sortzeari uko egin gabe, eta behin txistulari profesional lanpostua eskuratuta, betiko sen horri jarraituz konposizio ikasketak egin nituen Musikenen. Baita Sorkuntza Garaikideko Masterra ere. Nere sorkuntzak beti izan dute musika tradizionala eta garaikidearen arteko zubiak eraikitzeko nahia eta beharra. Nire bi izaerak elkartu nahia banu bezala.

Nola sortu zen Logelan Logale haur-kantata idazteko proiektua?

Euskadiko Orkestraren enkargua izan zen. Proiektu potolo bat egin nahi zuten haurrak eta heuren hezkuntza musikala erdi-

gunean jarritz, eta horretarako nigan pentsatu zuten eta Leire Bilbaorekin testua sortzeko. Ez ginen biok ezagutzen eta lehen pausua elkar ezagutu, elkarren lana eta norberaren lan egiteko moduak ezagutzea izan zen. Gai bat erabaki, biok artean zer kontatu nahi genuen eztabaidatu, eta ondorengo lan-ibilbidea norberarena izan da. Egia da tartean behin garrantzitsua zela nik kontatzea berari ze koloreren bila nenbilen musikan, eta Leirek testuaren irakurketak egiten zizkidan, berak buruan zituena tonua eta erritmoa bat etor zitezene nire musikarekin.

Zein izan da zure inspirazioa musika egiterako orduan?

Hasieratik eskatu nuen kontatzera gindoazen istorioak izan zezala “soinua”. Euskadiko Orkestrak oso kanpai joku ederra du, eta hari hautsak ateratzea zen nahietako bat. Hura izan zen agian lehen bultzada sortzerako orduan. Leirek garbi zeukan denbora jakin batean kokatu behar genuela istorioa, eta “gau bat” izan zen aukeratu zuen denbora, gau batek irauten duen denbora. Kanpaiek beraz gaueko orduak markatuko zituzten. Azkenik, argi neukan, gauak dituen orduak bezala, obra hainbat zenbakitan edo “kantetan” banatuko nuela. Eta kanta guztiek oso ezberdinak behar zutela izan, bai hizkuntza aldetik, bai eta landu beharreko musika aspektuei dagokionez ere.

Zein erronka planteatzen ditu haurrentzat idazteak? Eta zein aukera ematen dizkizu?

Haurrei, eta bereziki hezkuntza musikalik jaso ez duten haurrentzat idazteak duen erronka nagusia zailtasun maila erabakitzea da. Argi nuen haurrentzat pedagogikoa izan behar zuela lanak. Musikaren aspektu ezberdinak ikasteko lan bat izango zela. Hasieran irakasleek sustoa hartu bazuten ere, eta batzuek ikasleen gaitasuna zalantzan jarri... Argi esan genien guk ez baguen euren ahalmenean konfidantzarik ez zela lortuko helburua. Zaila zen? Bai, baina matematiketan ere gauza oso zailak egiten ikasten dute. Zergaitik ez musikan? Azken finean, zaila bada ez da ezinezkoa... Zaila bada, badago lortzea.

Emaitzari begira, zer nabarmenduko zenuke?

Hain justu horixe nabarmenduko nuke emaitzaz. Behin prozesua gauzatuta, irakasleek ikaragarritzko lana egin zutela, baina helburuak lortu ziren. Kanta guztiak ikasi zituzten, ikasleek seriotasunez ekin zioten erronkari, profesionalak balira bezala. Eta, garrantzitsuenak, ONGI PASA ZUTEN eta disfrutatuta zuten zuzenean orkestra batekin parte hartzen.







Easo Gazte **konpromezua eta grina**

JAKIN BADAIGU EASO GAZTEKO NESKA-MUTILAK IA HASIBERRIAK DIRELA KANTUAREN MUNDUAN, BAINA, OROKORREAN, ERAKUSTEN DUTEN KONPROMISOAK, GOGOAK, ABESTEKO ERRAZTASUNAK ETA BESTE HAINBESTE EZAUGARRIK BIZITZA OSOA KANTUAN DARAMATEN PROFESIONALAK DIRELA IRUDIKA DEZAKETE. IZAN ERE, BESTE URTE BATEZ, HAINBESTE ENTSEGUTARA JOATEAK BERE FRUITUAK EMAN DITU, BAI HOBEKUNTZA BOKALEAN ETA KORALEAN, AHOTS IKARAGARRIAK ETA EUREN ARTEKO HARREMAN SENDOAK UZTARTUZ.



Urtero moduan, Marie kontzertuak egin dituzte Easo Gazteko kideek; aurren, Cécile Chaminade (1857-1944) konpositore frantsesaren *Messe pour deux voix égales* obra interpretatuz. Hainbat entsegu partitura irakurtzen eman ondoren (hori ez zitzaion asko kostatu, ez baita oso obra zaila, musikalki), dinamikak lantzen hasi ziren. Horrela, zati ezberdinek eskatzen zuten fintasuna edo indarra modu ederrean gauzatzen zuten, elizetan biltzen zen publikoa atmosfera desberdinetan sartuz. Zalantzarik gabe, meza hori abesteak asko lagundu die gazteei interpretazioa ematen abesten dutenari, baita teknika hobetzen ere; izan ere, pianoak, fortissimoak, crescendoak edo diminuendoak egoki egiteko beroketa luze eta nekagarriak egon baitira atzean. Bide hau jarraituz, argi dago edozein gauza abestu ahal izango dutela inolako arazorik gabe.

Marie kontzertuez aparte, bazuten beste erronka bat esku artean gaztetxoek: *Logelan Logale*. Jagoba Astiazaran Kortak idatzitako melodiak, Leire Bilbaoren letrekin aberastuak. Inoiz ez zitzaion tokatu horrelako konposizio baten aurrean egotea; horregatik, hasieran zaila egin zitzaion proiektuaren dinamika asimilatzea: publikoa ez ziren gurasoak izango, ezta hiri ezberdinetako biztanleak ere, baizik eta eskoletako ikasleak, zeinek obrak landuko zituzten, kontzertuan zutik eurekin batera abesteko. Maskarak ere margotu beharko zituzten paperean sartzeko eta, ez eurek bakarrik, kolaboratuko zuten abesbatzek ere bai. Horretaz aparte, obra ere ez zen ohikoa, egin dituztenekin konparatuta: eguzkiak, eklipseak, ilargiak... Hala ere, proiektuak izugarritzko arrakasta izan zuen eta badirudi ez dela behin bakarrik egingo; aurren ere parte hartuko baitute.

Bestalde, egon dira urtero errepikatzen diren ekitaldiak; besteak beste, Deustuko Unibertsitatea bukatzen duten ikasleen graduazioan abestea edo Abuztuaren 31ko omenaldi-kontzertuan parte hartzea. Nahiz eta urtero egin, gazteei ahalbidetzen die kontzertuetara ohitzea eta, berriz ere, euren profesionaltasuna erakustea proiektu potoloagoetan. Aurten, horrelako bi proiektu izan dituzte, bereziki: Europa Donostia Estrategian edo Poliklinikako urteurrenean abestea. Horrelako aukerek Easo Gazte izena ezagun egiten laguntzen dute, irudi ederra ematen baitiote abesbatzari hain pertsona gazteek hain ondo abesteak. Egon da beste ekitaldi bat ere: Errealaren grabazioan parte hartu eta partidan abestea. Zer esan Xabier Anduaga handiarekin kolaboratzeaz, aurtengo Urrezko Danborra jaso duen eta munduko antzoki garrantzitsuenetan abestu duen abeslariaz. Izugarrizko ohorea izan zen horrelako aukera izatea abesbatzarentzat. Horrelako proiektuak, lehen esan bezala, Easo Gazteren bozgorailu dira, eta seguru ez dela izango azken aldia horiek egiten dituztena.

Orain arteko kontzertuak gutxi izango ez balira bezala, udarako opera ere prestatu zuten; aurten, *NiZuGu* operaren proposamenarekin. Opera errealista, publikoaren hausnarketa bilatzen duena dialogoan, zenbaki bakoitzaren letren edo melodien bidez, ume baten hazkundera kontatuz, gutxi gorabehera 7 urte dituenetik 16 urte dituen arte, ukitu barregarriak ere txertatuz. Izan ere, urtero badago gazteen abesbatzan galdera errepikakor bat: aurten udan opera egingo dugu, ezta? Galdera horrek argi





islatzen du zein ondo pasatzen duten entseguetara joaten, piezen letrak ikasten, oholtzan egin behar dituzten mugimenduak lantzen eta, noski, egindako lan gogorra guraso eta lagunei erakusten. Ikusten da pixkanaka lotsa galtzen dutela antzetzeko orduan, eta horrek abesbatza honi plus bat gehitzen dio.

Azkenik, abenduan urteko azken bi kontzertu izan zituzten: Easo Bazkideen kontzertua eta *Diario Vascok* antolatutako Gabonetako kontzertua (biak antzekoak erreperitorioari dagokionez). Bazkideei kontzertua egitea aukera oso ona da Easo Musika Eskola osatzen duten abesbatza bakoitzarentzat urtean landutakoa erakusteko, eta esfortzu hori baloratzen duten guraso eta lagunak baino publiko hoberik ez dago. Horregatik, Victoria Eugeniai eurei abestea etxean egotea bezala da. Bestalde, Juanjo Ociónek zuzendutako Gabonetako kontzertua ere oso berezia da koralista guztientzat; Euskadiko Orkestrarekin kolaboratzeak eta ikustera doazenekin gabon-kantak abestek edozeini jartzen baitio oilo-ipurdia.

